

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 171/2022 Erabakia, martxoaren 22koa. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundearen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari

Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzko Legeak, azaroaren 7koa, 23.1 artikuluan (betiere, lege honek emandako idazkeraren arabera: 16/1997, azaroaren 7koa) xedatutakoaren ariora, "aurrekontu izendapena duten giza baliabideen beharrianak, administrazio publiko bakoitzak dituen langileekin bete ezin badira, enplegu publikoaren eskaintzan eskainiko dira betetzeko".

Horrela, Gazteriaren Foru Erakundeak, Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoak, aldi baterako eta bitarteko enplegua finkatzeko prozesua garatu nahi du, dauden lanpostuak gehitu gabe. Horretarako, aurrekontu zuzkidura dutenak eta lanpostuen zerrendan daudenak aterako ditu eskaintzara.

Abenduaren 28ko 22/2021 Legeak, Estatuaren 2022ko Aurrekontu Orokorrak, mugak eta betekizunak ezartzen ditu langile berriak sartzeko, muga horien barruan onartuta, betiere errespetatuz gastuen aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu baliabideak, hurrengo sektore eta administrazioetan enplegu publikoaren eskaintza deitzea.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 19. artikuluko 7. puntuan ezarritakoaren arabera, giza baliabideak berritzeko tasa kalkulatzeko, ezarritako gehieneko ehuneko tasa aplikatuko zaio sektore, arlo, kidego edo kategoria bakoitzean aurreko aurrekontu ekitaldian zerbitzua emateari utzi zioten langile finkoen kopuruaren eta ekitaldi berean, edozein arrazoi dela eta, –enplegu publikoaren eskaintzakoak edo lanpostua gorde beharrik ez dakarten egoeretatik berriro sartuak izan ezik– horietan sartu diren langile finkoen kopuruaren aldeari.

Halaber, 8. puntuan adierazten da aurreko zenbakiko arauetatik ateratzen den tasa igo ahal izango dela uneko ekitaldian erregistratutako alta eta bajetatik eratorritakoarekin, eskaintza onartzen den egunera arte, eta hori eskaintzan bertan jaso beharko da. Horretarako, eskaintza ekitaldiko lehen seihilekoaren barruan onartu beharko da. Plaza horiek hurrengo ekitaldiko birjartze-tasatik kenduko dira.

2022ko Aurrekontuen Legean xedatutakoa aplikatuz, ehuneko 120ko birjarpen tasa dagokie, oro har.

2021ean Gazteriaren Foru Erakundeak, honako lanpostu huts hauek sortu ziren:

- Uretako Kirol Jardueretako Espezialistaren 161155 plaza.
- Garbiketa eta Zerbitzuetako Espezialistaren 111222 plaza.
- Gazteriako teknikariaren 020304 plaza.

Lanpostu huts horiei gehitu behar zaie 2022ko urtarrilean Espejoko Aterpetzeko Mantentze Lanetako Ofizialarena izandakoa, 090226 plaza-zenbakiarekin, 2023ko birjarpen-tasakoa dela.

Hori guztia kontuan izanik, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzaileak lan eskaintzarako proposamen bat egin du lanpostu zerrendaren arabera. Proposamen horretan sartuko dira aurrekontuan zuzkidura duten plaza hutsak, baldin eta ezin atzeratuzkoa jotzen bada haiek betetzea zerbitzu publikoak ondo ibiltzeko, lan eskaintzan sartuz betetzekoak diren plazak. Erabaki hori erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak aztertu zuen eta erabaki zuen Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea.

Kontuhartzaitza Zerbitzuari aginduzko txostena eskatu zaio.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen plazen 2022rako enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Plazak erabaki honen eranskinean jasota daude.

Bigarrena. Aipatutako eranskinean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak finkatzen dira, eta nahitaezkoa izango da hura betetzea plaza eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartzeko sistema orokorra oposizio-lehiaketa izango da.

Laugarrena. Eskaintako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdietan finkatuko dira, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartuko duen oinarrien arabera.

Bostgarrena. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, 70.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hautaketa prozesuak gehienez ere hiru urteko epearen barruan deitu beharko dira, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Seigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ



Eranskina / Anexo

ARLOA AREA	Unitatea Unidad	LANPOSTUA PUESTO	P.K. C.P.	Lanpostuak Plazas	K.E. R.C	D.E. R.D	T.T. G.T.	H.E. P.L.	D.D. F.P.	JUSTIFIKAZIO JURIDIKOA JUSTIFICACIÓN LEGAL
2 Egoitzak/ Residencias	30.40000 Zuhatzako Aterpetxe/ Albergue de Zuhatza	Uretako Kirol Jardueretan Especialista / Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas	161155	1	D	O/N	C1	2	1994/12/31 31/12/1994	2022 berritzeko tasa / Tasa de reposición 2022
2 Egoitzak/ Residencias	30.10000 Barriako Aterpetxe/ Albergue de Barria	Garbiketako eta Zerbitzuetako Especialista / Especialista de Limpieza y Servicios	111222	1	D	O/N	C2	1	2021/12/31 31/12/2021	
1 Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales	40	Gazteria Teknikaria / Técnico/a de Juventud	020304	1	L	O/N	A2	3	2017/12/31 31/12/2017	
2 Egoitzak/ Residencias	30.20000 Espejoko Aterpetxe/ Albergue de Espejo	Mantenimenduko Ofiziala / Oficial de Mantenimiento	090226	1	L	O/N	C1	2	-	2023 berritzeko tasa / Tasa de reposición 2023

Guztira /
Total: 4

Laburdurak /Abreviaturas:

P.K./C.P.: Plazaren Kodea / Código de Plaza

K.E./R.C.: Kontratazio Erregimena / Régimen de Contratación:

- L: Lan-kontratu Finkoa / Laboral Fijo Continuo

- D: Aldizkako lan-kontratu finkoa / Laboral fijo-discontinuo

D.E./R.D.: Dedicazio Erregimena / Régimen de Dedicación

- E: Erabatekoa / Exclusiva

- O/N: Ohikoa / Normal

T.T./G.T.: Titulazio Taldea / Grupo de Titulación.

H.E./P.L.: Hizkuntza Eskakizuna / Perfil lingüístico.

D.D./F.P.: Derrigortasun Data / Fecha de Preceptividad